



EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 11koa, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena. Erabaki honen bidez aditzera ematen da noiz egingo den tokiz aldatzeko lehiaketan parte hartu duten funtzionarioek alegatutako merezimenduak baloratuko dituzten Balorazio Batzordeetako kideen zozketa. Ondoko kidegoetako funtzionarioak dira: Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoko, Arte Plastiko eta Diseinuko katedradun eta irakasleen kidegoetako funtzionarioak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoko funtzionarioak bai eta Lanbide Heziketako sektore berezietako Irakasle Teknikoen Espezialistak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe daudenak.

Hezkuntza sailburuak 2023ko azaroaren 22an emandako Aginduaren bidez egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia (EHAA, 2023ko abenduaren 1a). Agindu horren hogeita hirugarren oinarriarekin bat etorritz ondokoa.

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- 2023ko azaroaren 22an Aginduak araututako lekualdatze-lehiaketan parte hartzen dutenek (Maisu-maistren kidegokoak izan ezik) alegatutako merezimenduak -I. Eranskinetako puntuazio-baremoak 5.1, 5.2, 6.1, 6.2 eta 6.3 atalei dagokienez- ebaluatzeko Batzordeetako partaideen zozketa 2024ko urtarrilaren 12an egingo dela, goizeko 9:00etan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan (Donostia-San Sebastian, 1, Lakua II. eraikina, 3. solairuan Vitoria-Gasteiz).

Bigarrena.- Hezkuntza Sailaren web orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila>) eta <https://hezigunea.euskadi.eus>, emango da argitara aipatutako zozketaren emaitza aditzera ematen duen Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpena.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 10a.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO